IRAKURLEAK MINTZO

Eskertzeko da benetan irakurleen iritzia. Irakurleentzat ari bait gera idazten. Ala nahi genduke behintzat. Baiña zail da "irakurleak" mintzo" sailletik bide jator bat aukeratzea.

Bi muturretan dauden iritziak etorri ohi dira. Bat ere arrazoitu gabeko iritziak datoz gaiñera. Auetxek esaten zaizkigu zapla-zapla: Z. A. Euskal Erriaren aurka ari da, fedearen aurka; euskera mordoilloa erabiltzen du, Elizaren akatsak nabarmentzen ditu.

Baiña au guzia noiz, non eta nola egiten duen esan beharko litzake. Gure ustez gero eta euskera obea egiten saiatzen bait gera. Eta salatzen ditugun akatsak, maite dugun zerbait akatsikan gabe ikusi nahi dugulako, salatzen ditugu. Ez dakigu Euskal Erria behar ainbat maite dugun, baiña maite nahi gendukeala ezin uka.

Au gaituzue gu. Eta gu au izanik nolatan ematen ditu oso bestelakoak diran fruituak? Eman al dezazke? Zer begiz ikusten dira? Zer gertatzen da?

"Slogan" pean bizi gera edozertarako. Eta "slogan" batzuk sortu ditu Z. A. eskuratu ez duen norbaitek. Eta orain ahoz-aho dabiltza eta erriz-erri.

"Slogan" oien atzean, berriz, beren Euskal Erria, beren euskera, beren fedea, beren aldizkaria, beren asmoak babesten dituzte. Ez dute onartzen aurrera doan Euskal Erririk, aurrera doan euskerarik, aurrera doan federik. Ez dute onartzen aldaketarik. Ez dute onartzen gertatzen ari denik. Ortxe ikusi nahi lukete Z. Argia ere. Ez lukete gaurko zurrunbilloetan zikindurik ikusi nahi.

Baiña zikindua egon nonbait eta garbitzeko biderik ere ez eduki, noski eta beste aldizkari baten atzetik ibilli dira. Orain, berriz, beren ori indartu eta zabaldu nahi lukete.

Guri oso ondo iruditzen zaigu beren bizi-molde eta giroari erantzungo dion aldizkari bat edukitzea. Berentzat nahi dutena, besteei ez opa izatea ez dugu onartzen. Zergatik era bateko aldizkariak behar ditugu? Ez al dira Euskal Erriarentzat desberdintasuna eta ugaritasuna mesedegarri?

Zergatik besterena ito eta il, nork berea salbatzeko? Ez al da ori Euskal Erriari, euskerari eta fedeari kalte egitea?

Ez dezagun jendea engaiña. Ezi dezagun desberdintasunerako eta askatasunerako. Ez dugu jende itsurik behar.

Irakurleak behar ditugu, ez arpidledunak bakarrik. Orregatik behar beharrezko ditugu irakusleen iritziak. Labur azalduak badira ere ahal denik eta sakonenak izan ditezela.

Baiña ez da aski iritziak bidaltzea Z. A. obetzeko. Lanak behar ditugu eta gero eta obeak gaiñera.

Denona danez gero, denok ondu behar dugu Z. A.

OSO ZAILA OMEN

Gure arteko erdaldunek diotenez, idazten dugun euskara «oso zaila» da. «Muy difícil» erantsi ohi dute; eta, tarteka erdipurdiko euskal hitzen bat haurrei esanda, erdaraz *ekiten diote elkarrizketari patxara* osoan. Gai sakonak erdara hutsez, jakina; euskaraz... haurrekin (txikiak direno!), eta batzutan, txit gutxitan, garrantzirik gabeko arazoez ere bai.

Baina gure euskara hau «bene-benetan: oso zaila!!!», «euskeranto hutsa», «muy difícil».

Egia dea hori?

—oOo—

Gogoan har dezagun frantsesa.

1) Erresuma batzutako *lege-hizkuntza da:* Fraintzian bertan, jakina; baina baita Belgikako Hegoaldean, Suizako Mendebaldean, Haitin, Quebec-en, eta Afrikako zerbait erresumatan.

2) Eguneroko bizian, goiz eta arratsalde, jai eta aste, eskolan, unibertsidadean, armadan, lanean, administrazioan, *miloika jendek* erabiltzen dute etengabe eta hutsik. 70.000.000-ek horrela, eman dezagun.

3) Frantsesak badu *literatura-hildo luze bat.* Mendeetan barrena, eta belaunik belaun, landua izan da, eta aberastasun eta zehaztasun handiak lortu ditu: hitz bakoitzak adikizun eta erabilkera berezi-bereziak ditu; eta jakintza-sail guztietan osaturik eta gertaturik dago frantses hizkuntza.

4) Lehenengo mailako idazlez ausarki hornitua, urtero eskaintzen ditu aldizkariak eta liburu berriak. Frantsesezko izkribuak anitz hizkuntzatara itzultzen dira; eta irakurleak baditu, batera, Sartre, Leprince-Ringuet, R. Aron, Chenu, J. Monod, Le Canard Enchaîné, Le Monde eta «Série Noire» pilo bat. Frantsesak *literatura ugari eta bikaina du,* hitz batez.

5) Frantses hiztunak beharbada trufatzen dira batzutan «Académie «*Académie*» delakoak erabakitzen duena lege bihurtzen da, eta erabat errespetatzen. «Homme» hitza «omme» Fraintzian idazten duena, Française»-ko burukideez; baina *analfabetotzat salatzen da ahobatez;* eta «homme» idazten hasi arte, ez du nalakoak lan-posturik lortzen, ez inungo etsaminarik garaitzen.

FRANTSESA, hitz batez, KULTURA-MAILAKO HIZKUNTA DA; eta jakintsuak, hizkuntzalariak, idazleak eta intelektualak dira nagusi.

—oOo—

Azter dezagun orain euskara.

1) Euskara ez da *inungo lege-hizkuntza,* hizkuntza ofiziala alegia. Ez du inun erresuma baten laguntza.

2) Euskara *oso gutxi erabiltzen da.* Baita euskaldun izenekoen artean ere, askl da erdaldun bakar bat hemeretzi euskaldunen ondoan, hogeiek erdarara jo dezaten. (Eta bestetan, hogeigarren hori etorri aurretik ere!). Euskaldun guztiak, bestalde, bimintzodunak dira gaur. Guztira, beraz, hirurehun edo larehun mila euskaldun karkulaturik ere (alegia, franstesez mintzo direnak baino *200 aldiz gutxiago)* ez dezagun ahantz nolako hiztunak diren hauek eta haiek, eta gu nolako erdal giroan bizi garen.

3) Euskara ez da *inoiz batua izan;* eta hori dela-ta, hitzek ez dute zehaztasunik. «Samurtu» hitzak hasarretu adieraz dezake, baina bigundu ere bai; «hauts» eta «errauts» hitzak guztiz elkarren itzuletara *erabiltzen dira Ekialdean* eta Mendebaldean; «sarri» hitza ez da gauza bera Nafarroan eta Gipuzkoan; batzuk «bazkaldu gira» diotena, besteek «bazkaldu degu» diote; hemen «nekatu» (edo «nekau») esaten dena, hor «akitu» bihurtzen da, eta han «unatu». Batasun falta *honek euskararen sustraia erauzi* du; hizkuntza bat aurrenik elkarpide eta mintzabide balt da, eta ez folklore-jazkera.

4) *Gure literatura oso ahula da,* oso txiroa, oso txarra. Esku baten behatzez konda daitezke erdarara itzuli diren euskal liburuak. Ez dugu idazle-izen bakar bat ere mundura azaltzeko modukorik. Azkeneko urte hauetan idatzi da, Azurmendik uste duenez, onena; eta hein batez itzulgarri izan litekean bakarra. Hots, irakurleak badaki zer idatzi den. Liburu-sail osoak hutsik daude oraindik.

5) Euskaldunak, beren ezjakinak berak harroturik, *«Eunkaltzaindia»z trufatzen dira.* Edozein astaputz kirtenek bere zozokeriak botatzen eta idazten ditu lasai Euskaltzaindiaren *iritzien* eta erabakien kontra. «Homme» hitza, gurean, «omme», «omm» «om» edo «ome» idaztea (nork bere gisara, «demokrazia»ren arabera, omen...) oso ongi iritzia da oraindik. Zenbait ikasgutan, esate baterako, «homme» idatziko lukean ikasle lotsagalduak lituzke, hain zuzen, bere *etsaminak galduko!!*

EUSKARA, hitz batez, ARLOTERI-MAILAKO HIZKUNTZA DA. Eta analfabetoak, mandoak, zozoak eta harroputzak dira nagusi.

—oOo—

Goazen aurrera, ordea.

Fraintzian (eta gauza bera frantsesez mintzo diren beste erresumetan) erakaskintza-maila GUZTIETAN, beheretik goraino, frantsesa da mintzabidea eta... *ikaskia.* Frantsesek, waloniatarre,k quebec-tarrek, eta abar, urtetan barrena eta milaka ordutan barrena, beren hizkuntza lantzen, osatzen eta zorrozten dute. Baita Unibertsidadean ere, frantsesa bera gaitzat duten azterketak eta ikaskizunak, eguneroko ogia dira.

Euskal Herrian, berriz, erdara da askotan ama-hizkuntza eta erdara da ikaskaia eta mintzabidea. Euskara ez da, eskuarki, ez mintzabide, ez ikaskai.

FRANTSESA LANDUA IZANAK GAIN, FRANTSESEK ERA GUZTIETARA OSATZEN DUTE BEREN HIZKUNTZA; EUSKARA, BERRIZ, LANDUGABEA IZANAZ GAIN, EUSKALDUNEK EZ DUTE OSATZEN EZ IKASTEN.

—oOo—

Nola nahi duzue, horretara, geure mintzaira hau gaurko mundurako tresna egin nahi dugunon euskara «zaila» ez izatea? Seinale txarra litzake, hain zuzen, erraza izatea; *eta guztiz berritu eta osoturik* ere, lehenagoko itxura eta kutsu landerra eta «etxekoa» izatea. Nola horrelakorik, bestalde?

Berrikuntzaren eta biziaren trena aspaldian hartu zuten frantsesek, inglesek, nederlandarrak, japondarrek, txekoslobakiarrek, finlandiarrek, eta gainerako erdaldunek. Guk, berriz, trena galdu genuen orduan (orain dela bizpahiru mende gutxinez); eta geroztik ere makina bat aldiz galdu dugu. Eta han gelditu gara, estazioan, lozorroan... Zugarramurdiko sorginek eraman gintzaten zai. Eta hortxe gaude oraindik, eta egongo. Eta hortxe egon gaitezen nahi dute gure «zailtasunak» salatzen dituztenek...

«Zaila» omen... Noski!

Gauza bera litzake andenekoak joandako trenekoen habailaz errenkuratzea, eta «azkarregi» doazela esatea. Ez, jaunak. Berak azkarregi ez, baina zuek egonean eta pipa-jotzen.

Ez dizaiegun, beraz, estazioa utzi nahi dutenei zaunka egin. Ez dezagun esan, zoroek bezala, Londres-ko jendeek «zail» egiten dutela inglesez, inglesez geronek ez dakigula baizik.

«Para los ancianos la culpa es siempre del empedrado» esan ohi da erdaraz. Eta gauza bera errepika liteke orain ere: erdaldunen ustez, beti da euskara «zaila» erruduna, eta sekulan ez haien erdaltasun amorratua eta ez-jakintza gorria.

Geure ahuleria aitor dezagun, ikas dezagun, eskola gaitezen apur bat, euskararen jaso-beharraz jabe gaitezen; eta, otoi, apalki, gure Atsularrek bezala, hau esan: «euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak».

LARRRESORO

GIZARTEARI BEGIRA...?

Sarritan, zuk eta nik egin izan dugun galdera hauxe duzu: «gure artean, gizarte arazoarekiko kezka eta ardura handiagoa ahal da lehengoa baino? Zenbaiterainokoa dugu gaurregun gure artean sumatzen den kezka?»

Badakit, ez dago gai honetan erantzun zehatz eta garbirik ematerik. Bestalde, lehengo hori ezagutu ez dugunok, egungoari begira erantzun beharko dugu.

Agintariek hitzaldiren bat egiten dutenean, herriaren laguntza beharra aldarrikatzen dute: gogo onez egindako kritikaren beharra, gauzak zuzentzeko laguntzaren beharra, herkideen laguntzarik gabe ezertxo ere lortzerik izango ez duten ustean... Egiteetan horrela gertatzen den ala ez, zerorrek erantzun ezazu.

Gai honetan, pesimistegia nauzute beharbada, baina gaurregun gizarte arazoaz gutxi batzuek baino ez dira arduratzen, minoriak dituzu, idealistak, gazte-eroaldiaren ondorena, zenbaiten iritzi.z.

Gizartearekiko kezka ez da neurri berdinean bizitzen. Gehienak, nahiago nuke egia izango ez balitz, nork bere interesak zaintzen dituen neurrian arduratzen dira, gainontzekoena bots axola dielarik. Aste egunean telebisioan futbolarik ez badago, astea luze egiten zaie. Aste egunean diskoteka eta dantzara joateko hainbat ez badute... ordunxe nahigabe eta samina. Egin genitzake, simpleki epaitu, baina, gure artean badago horrelakorik, zoritxarrez.

Beste zenbait, hor dabilkigu, sozial problema ela merio, langintza gogorrean murgiluak. Hauentzat pertsona produzio erlazioetan menperatu eta zapaldutakoa baino ez duzu. Ez dago, langintzaz kanpo, beste eratako zapalkuntzarik: solasak, publizidadea, informazio bideak, t.a. Pertsonaren nortasunaren baitan ez dute abiatu nahi, burges goi-estrukturak besterik ez bait dira gehienetan Neronek adieraz nezakedana baino hobekiago mugatuko uzu zerorrek ezagutzen dituzun pertsonetan...

Hizkuntza eta kultura soilarekin (sic), kontentatzen en jendea ere badago gure artean... Produzio sistema, egiturak, lantegi antolaketak, t.a. sozial gauzak direnez gero bestek konpon ditzatela.

Azkenik, badira, bi alderdiak errealidadean elkarturik daudelako, benetan zabal eta sakon joka nahi lutekenak. Pertsona konkretoa oinarritzat harturik zapalkuntza oro desegin nahi dutenak... Gure txalorik beroenak hauentzat.

Kezka eta ardurak ez dute ezertarako balio praktikotasunez ekiten ez bazio. Horregatik, zenbat ote azken pausoa ematen dutenak?

Gure artean despiste ikaragarria nabari da, miopia edo daltonismo hutsa... Nere lagun batek, Baionara joateko asmoz, Paris-eko egazkiña hartu zuen, lehenago iristeagatik, noski. Gehiagorik zer esango dut...? Bakoitzak ahal duena ulert beza.

Beste herrialdeetako giroarekin konparatuz gero, hemengoa txepela dela esan behar. Erroman bertan, besterik ikusi ahal izan dugu. Gaztetxoek, familia prolema, ikastetxearena, t.a. kontesko baten barruan aztertzen dute, gizarte giro eta erakunde bete betean, eta ez pentsa gero, demokraziaren gaiIurra bertan dagoenik...

Jaio nintzan eta «gizarteaz ez kezka» esan zidaten. Fraile eskolan: «Hirea zaindu ezak, eta gainontzekoak hor konpon» erakutsi. Lantegi barruan, nork bere promozioaz arduratzea zen egokiena... Ezkontza barruan ere maitasuna da inportantea, gizarte arazoak gaztetentzat.

Galdera nagusiena: nor errudun? Zure erantzunaren baitan uzten dut.

Mikel Ugalde

ZERUKO ARGIA

Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.° Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez gaidetu
Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta